

PIJAMAREN EGUNA

HAURREN MUNDUKO EGUNA

Familian hazteko eskubideagatik

BATU ZUEN IKASTETXEA PIJAMAREN EGUNERA!

Pijamaren Eguna harrera-familien elkarteek sustatutako ekimen solidario, hezitzaile eta ludikoa da. Elkarte horiek **ASEAF**en biltzen dira, eta haurren eta nerabeen familia batean hazteko eskubidearen inguruan ikasleak eta familiak sentsibilizatzea dute helburu.

Urtero, **azaroaren 20an, Haurren Mundu Eguna** dela eta, ikasleak **ikastetxera pijama jantzita** etortzera gonbidatzen ditugu, egun berezi eta desberdin batez gozatzeko.

ZERGATIK DA HAIN GARRANTZITSUA PARTE HARTZEA?

Espainian, **ia 20.000 haur eta nerabe bizi dira babes-zentroetan,** familia batean bizi beharrean. Tutoretzapeko **haurren errealitatea oraindik ere ikusezina** da neurri handi batean, eta horrek zaildu egiten du haur horiek familia bat aurkitzea. Horregatik, irakasleak funtsezkoak zarete ikusgarritasuna emateko.

NOLA LANDU PIJAMAREN EGUNA IKASGELETAN?

Pijamaren Eguna aukera paregabea da **Haurren Eskubideei buruz hitz egiteko** eta ikasleei harrera-zentroetan hazten diren haur eta nerabeen errealitatea hurbiltzeko, jarduera desberdinen bidez.

ZER MATERIAL BIDALIKO DIZKIZUEGU?

- Pijamaren Eguneko kartelak
- Jarduerak eta jolasak.
- Ipuinak
- Filmak, serieak eta laburmetraiak

ZER BESTE JARDUERA EGIN DITZAKEZUE?

- Ipuin eta marrazki lehiaketak
- Hausnarketa-jarduerak eta eztabaidak

2016an martxan jarri zenetik, **50.000 ikasle, irakasle eta familiak** baino gehiagok parte hartu dute ekimen honetan.

HAUR GUZTIEK FAMILIA BATEAN HAZTEKO ESKUBIDEA DUTE

ASEAF
Asociación Estatal de Acogimiento Familiar